



EDURNE PASABAN 2007KO KIROLARI ONENA

Atzo banatu zituzten Kirolari Onenari sariak; bigarren Ainhoa Pagola izan zen eta hirugarren Egoitz Zalakain 2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2007-12-20

V.URTEA 1.318.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Auzitegi Nazionaleko epaimahaiak Xaki ET Aren «bihotza» dela esan du

TOLOSALDEA '18/98 auzi'-ko Xaki atalean daude Mikel Egibar, Nekane Txapartegi eta Joxe Mari Olarra

ZIGORRAK Egibar eta Olarrantzat 13 urteko zigorra zehaztu du; Txapartegirentzat, berriz, 9 urtekoa 4



Ezker-eskuin: Enrike Azurza, Jantxo Zeberio eta Gonzalo Tejada. I. TERRADILLOS

ARGIA IKUSI DU 'UMAMA II' DISKOAK

TOLOSA Proiektuaren zuzendaria Jantxo Zeberio musikari tolosarra da; diskoak euskal kantak eta lan berriak biltzen ditu 3



Jon Rekondo eta Joseba Otaegi Tolosako zezen-plazan. NAIARA GARZIA

Rekondo eta Otaegi aizkolariak aurrez aurre Tolosako zezen-plazan

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Igandean izango duten aizkora apustuan 4.000 euro dituzte jokoan 7

ametssetako bidaia ren irabazlea

Alazne Gorostiza Zabala



BI LAGUNENTZAKO ASTEBETEKO EGONALDIA

kanaria uharteak egipto jordanía riviera maya salvador (brasil) costa rica istanbul india

HITZA
orain gertuago

HITZA jarriko da
irabazlearekin harremanetan



Atzo Leidorren egindako Kirolari onenaren sariketako uneetako bat. E. EZEIZA

Edurne Pasaban da 2007ko Tolosako Kirolari onena

Kirola » Bederatzigarrenen zortzimilakoa igo du aurten; bigarren Ainhoa Pagola izan da eta hirugarren Egoitz Zalakain.

ESTI EZEIZA

Atzo eman zen jakitera zein den aurtengo Tolosako kirolaririk onena. Hala, oraingoan saria Edurne Pasaban mendizalearentzat izan da. Bera kanpoan dagoenez, Pasabanen amak jaso zuen garaikurra. Bigarren saria Ainhoa Pagola, pistako txirrindulariarentzat izan zen, eta hirugarrena, Egoitz Zalakain triatloilariarentzat.

Tolosarrak bere bederatzigarrenen zortzimilako gailurra batu zuten uztailearen 12an. Erronka honetan, kirolari onenaren sarirako izendatua zegoen Asier Izagirre izan zuen bidelagun. Baita, Ferran Latorre kataluniarra eta Ivan Vallego ekuatoriarra.

2007ko apirilean ekin zion erronka berri bati Edurne Pasabanek, munduko 14 gailur garrantzitsuenak igotzeko helburuz. Honenbestez, hori burutzen duen lehen emakumea izan daiteke. Orain arte gailur gehien igo dituen emakumea Gerlinde Kaltenbrunn-

ner austriarra da, guztira 10 igota dituelarik. Tolosarrak ondorengo bi edo hiru urteetan erronka gainditzeko asmoa azaldu zuen. Hori dela eta, urrian, Shisha Pangma igotzen saiatu zen, baina bi aldiz saiatu ondoren, amore eman behar izan zuen.

Orain, bost zortzimilako geratzen zaizkio igotzeko: Annapurna, Shisha Pangma, Kangchenjunga, Manaslu eta Dhaulagiri.

Gainontzeko izendatuak

Tolosako 12 kirolari zeuden izendatuak urteko kirolaria izateko. Aukeraketa hau Tolosako klubetako ordezkariak egin zuten. Joan den urtean Kepa Caballero izan zen.

Ondorengo kirolariak ere izan ziren izendatuak Tolosako kirolari onena gisa: Mikel Olaetxea pilotaria; Unai Arcelus judoka; Joseba Ormazabal mendiko eskiazailea; Asier Izagirre alpinista; Josu Agirre txirrindularia; Joseba Rojo iraupen eskiazailea; Karlos Peña igerilaria; Jon Azpiazu igerilaria eta Joseba Jauregi korrikalaria.

Hauez gain, lehen hiru postuetan geratu diren Edurne Pasaban, Ainhoa Pagola eta Egoitz Zalakain hautatu zituzten Tolosako kirol taldeek.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Irakaslea.** Ingeleseko irakaslea behar da arratsaldez klaseak emateko. Interesatuak deitu 943 67 19 62 edo 686 97 19 62 telefono zenbakietara.

■ **Zerbitzaria.** Esperientziadun neska behar da kafetegian lan egiteko. Asteazkenetik ostiralera, arratsalde. Interesatuak deitu

943 67 04 46 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumardi Txikiaren parean (Santa Klara). 2 logela, sukalde handia, ganbara eta berogailuak. Hormigozkoa. Uzturre aldera begira. Deitu 665 70 86 35era.

Eskualdeko kirolariek «Euskal Herria ordezkatzeari» eskatu dute



Eskualdeko kirolari ezagunenetakoez egin dute bat ESAITek antolatutako ekimenekin. E. EZEIZA

Kirolak » Hilaren 29an Euskal Herria-Kataluniaren partidaren harira deitutako ekitaldietan parte hartzeko gonbita egin dute.

ERREDAKZIOA

Euskal Selektzioaren inguruan azken hilabeteetan sortu diren zalapartak ikusita eta hilaren 29rako Bilbon antolatutako ekimenen harira, zenbait hausnarketa eta eskaera plazaratu dituzte eskualdeko kirolariek.

Eskualdeko herritarrei dei berezia egiten diete, hilaren 29an, larunbatarekin, Euskal Herria eta Kataluniaren arteko futbol partidarean aurretik ESAITek Bilboko Arenean antolatutako jai gunera joateko. Horretarako, autobus bereziak antolatu dituzte eskualdeko eta dagoeneko izena eman daiten eskualdeko zenbait taberna eta kiroldegitan. Bestalde, dei be-

» AUTOBUSAK

- **Alegia.** Jubilatua, Etxeberria eta Iskina tabernetan.
- **Tolosa.** Raku, Txiki eta Denak tabernetan nahiz Usabal kiroldegian.
- **Ibarra.** Atari tabernan eta kiroldegian.
- **Anoeta.** Kiroldegian eta Itzuli tabernan.

rezia egiten diete Tolosaldeko kirolariei, ibilbidea manifestazio-buruan egiteko.

Kirolarien aldarrikapenak

Hasteko «Euskal Herria nazio bat» dela aldarrikatzen dute. Ondorioz, nazioarteko txapelketa ofizialean parte hartzeko «eskubidea» dutela deritzote. Honenbestez, herenegun kirolariek egindako agerraldian, «euskal kirolariok, nazioartean, era ofizialean Euskal Herria ordezkatzeko aukera» aldarrikatu zuten. Onartu zuten ere, helburu hori lortzea ez

dagoela soilik kirolarien esku. Baina era berean, «ofizialtasunaren alde lan egitea beraien zeregina» ere badela argi daukate. Hala, beraien selektzioa «Euskal Herrikoa» dela diote. Zentzu horretan, aurrera egiteko, beraien esku dauden pausoak emateko prest daudela argi eta garbi azaldu zuten.

Luzatutako eskaerak

Eragile eta kirol federazio ezberdinei eskatzen diete, ofizialtasunaren bidean aurrera egin eta Euskal Herriko selektzioek nazioarteko txapelketa ofizialean parte hartzeko duten eskubidea bermatu arte, lan-indarrak areagotzeko.

Frantziako eta Espainiako eragile politiko eta kirol-federazio ezberdinei eskatzen diete, Euskal Selektzioaren aurkako erasoak alde batera utzi, eta euskal kirolariak nazioarteko txapelketa ofizialean Euskal Herria ordezkatzeko aukera ematea.

Tolosa-Alegia arteko bidegorrian berrikuntzak egingo dituzte

Hirigintza » Alde batetik, bidearen lehen fasea argizatuko dute, eta bestetik, bigarrenean zenbait aldaketa eman.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.084.611 euro inbertituko ditu Gipuzkoako bidegorrien sareko lau zatitan. Horietatik bi Tolosaldekoak dira. Alde batetik, Tolosa-Alegia bideko faseari dagokion zatia argizatuzko erabiliko da dirua, eta bestetik, proiektu horren bigarren fasean aldaketa batzuk egingo dira. Garapen iraunkorreko departamentuak beste bi proiektu haueta-

rako ere bideratuko du dirua: Azkoitiko bidegorria luzatzea eta hitzarmen baten bidez azpiko pasabidea egitea Eskoriatzan.

Tolosa-Alegia bitartean, guztira 2.365 metro argizatuko dituzte, eta horretarako, 3,5 metro altuerako 72 kale-argi erabiliko dituzte. Hauek 20-25 metroko distantzia izango dute elkarren artean. Argi hauek, erloju programatzailen bidez piztuko dira, eta fluxu murriztaileak jarriko dizkiete energia aurrezteko. Lanen aurrekontua 307.730, 52 eurotako da eta bi hilabeteren buruan egingo dituzte. Horrez gain, lanak lehiaketa bidez esleitzeko prozedura irekiko da. Honenbestez, nahi duten enpresa guztiak aurkez daitezke. Honi da-

gokion iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki dute.

Bigarren fasea

Tolosa eta Alegia bitarteko bidegorrian gauzatuko diren aldaketak esker, bidearen zorua berrikuntza da, Oriarteko kolektorerako Eusko Jaurlaritzak N-1 errepide zaharrenean egiten ari den indusketa lanek hartutako leku batean. Gainera, bidegorria zabaldu egingo da lau metrora arte, lehen fasean egin zen zatia zabalarekin berdintzeko. Hobekuntza horiek direla eta, 155.030 euroko gastu gehigarria onartu dute. Beraz, lanen aurrekontu osoa 774.061,96 eurotako izango da.

'Umama II' disko berria kalean da

Musika » Juantxo Zeberio musikari tolosarra da proiektuaren zuzendaria; euskal abesti ezagunak eta lan berriak biltzen ditu

IÑIGO TERRADILLOS

Umama diskoak badu dagoeneko bigarren zatia, izan ere, Juantxo Zeberio piano-jotzaile eta konpositoreak, Hodeiertz abesbatzak eta Enrike Azurza bere zuzendariak eta Gonzalo Tejada kontrabaxuak, Hasier Oleaga bateriak eta Mikel Andueza saxoak *Umama II* izeneko bigarren lana egin berri dute, Bonberenea ekintzak ekoiztua eta Elkar estudioetan grabatua.

Lehena zuzeneko emanaldi baten ondorioz sortu zen, eta bigarrena, patxadaz egin ahal izan dutela azaldu dute egileek. Imanol, Benito Lertxundi, Juan Carlos Perez eta Mikel Laboa bezalako euskal kantarien abestiak, herrikoiak, hemengoak eta hangoak eta konposaketa berriak sartu dituzte lan berrian, «kantu guztietan jazz laukotea eta abesbatzaren arteko el-



Jon Ander Ubeda, Enrike Azurza, Juantxo Zeberio eta Gonzalo Tejada, atzo eginiko aurkezpenean. N. LATABURU

karrizketa naturala bilakatuz eta sonoritate desberdinak arakatzuz». Egileen arabera, ederrera bidea izan da; «Enrikerekin eta Hodeiertz abesbatzarekin, Tolosan eginiko prestakuntza lanetan, kontzertuetan, Gonzalo, Mikel eta

Hasier bidelagun, eta hauen musikaz eta adiskidetasunaz gozatuz».

Bonberenea ekintzak

Udazken honetan Bonberenea ekintzak eginiko laugarren diskoa da atzo aurkeztu zuten *Umama II*.

Juantxo Zeberio proiektuaren zuzendariak «plazerra» izan dela Bonberenea ekintzak-ekin lan egitea azaldu zuen atzo eginiko diskoaren aurkezpenean. «Kultur dinamizatzailea da, eta irakiten borrori ar den gunea».

» DATUAK

- **Diskoa.** *Umama II*.
- **Ekoizpena.** Bonberenea ekintzak.
- **Grabaketa.** Elkar estudioetan.
- **Proiektuaren zuzendaria.** Juantxo Zeberio.
- **Musikariak.** Hasier Oleaga (bateria), Juantxo Zeberio (pianoa), Gonzalo Tejada (kontrabaxua), Mikel Andueza (saxoa), Hodeiertz Abesbatza (Enrike Azurzaren zuzendaritzapean), Arantxa Irazusta (ahotsa), Miren Garikano (ahotsa), Moira Zeberio (ahotsa), Iñigo Egia (perkusioa), Xabier Erkizia (elektronikak), Orea TX (txalaparta), Et Incarnatus orkestra eta Ereskitxo haur abesbatza (Migel Zeberioaren zuzendaritzapean) eta Laskorain abesbatza (Naiara Mintegiaren zuzendaritzapean).

la kasualitatez sortua

Kontzertu baten ondorioz sortu zen *Umama*. Bigarren lana iritsi da, eta beraiek esan bezala, «ziur jende askori gustatzen zaiola, proiektu berezia, maila handikoa eta bakarra baita».



Kirikiño mendizaletasuna bultzatuz

AISIA » Pasa den asteburuan Kirikiño taldean mendi irteerak egin dituzte. «Gure Heziketa Proiektuaren barnean bada mendizaletasuna bultzatzea eta natura mirestea, Euskal Herrian ditugun hainbat txoko ezagutzuz», azaltzen dute Kirikiñotik. Horregatik hiru hila-

betez behin edo bitan egiten ditugu irteerak, kanpatez gain. Hala, igandean Bizkorak-eko 30 bat neska-mutil Txindoki aldera abiatu ziren, eta Helduak-eko beste hainbeste Urbasako kobazuloetara, lur azpian topa daitezkeen leku interesagarriak ezagutzera. HITZA

Merkatu Txikirako material bilketan ari dira

Elkartasuna » Erretengibel bulegoan, edota Kultur Etxean utzi ahalko da Merkatu Txikian salgai jartzeko materiala

I. TERRADILLOS

Hamabigarren urtez, Laskorain ikastolako hezkuntza komunitateak, «gure inguruko eta kanpoko giza beharrez jabetu, kontzientzia zabaldu eta neurri batean ekonomikoki laguntzeko asmoz», han eta hemen bildutako jantziak, tresnak, altzariak... Merkatu Txikian salgai jarriko ditu Kultur Etxean, abenduaren 26tik urtarrilaren 6ra arte. *Eutsi elkartasunari* lelopean, bertan ateratako dirua Ibarrik misio taldea eta Tolosaldea Sahararekin Gobernu Kanpoko Erakundeentzat izango da.

Aurreko urteetan bezala etxe, denda, taberna, lantoki, finantza erakunde eta gainerako elkarteetara ate joka inguratu dira Merka-

tu Txikian salgai jarriko duten materiala jasotzera. Edonork parte har dezake berarentzat baliagarriak ez zaizkion gauzak eskainiaz. Material bilketa Laskorain ikastolan, Plaza Zaharreko Erretengibel lokalean (gaur azken eguna, 18:00etatik 19:00etara) edota gaur eta bihar arratsalde Tolosako Kultur Etxean egingo dute. Salmenta egunetan ere eraman ahalko da materiala, Kultur Etxera.

Aurreko urteetan «tolosarren-gandik jasotako laguntza, eskuza-baltasuna eta esker ona» emango delakoan daude, eta tolosar orori eta bereziki dendariei, tabernariei, finantza erakundeek, lemaekin bat eginez elkartasunerako beren borondate ona eskaini dezaten deia luzatzen diete.

Bestalde, Emaus erakundearen parte-hartzeari esker, altzariak, armairuak, sofak... biltzeko aukera badago, konpondu eta salgai jartzeko berriro. Altzariak kendu eta bertan uzteko asmoa duenak 943 459874ra deitu beharko du.

Laburrak

Santomaseko barrikotea egingo dute Amarozten

KULTURA » San Tomas eguneko barrikotea antolatu dute etziraiko Amarozko Auzo Elkarteek. Parbularioko estalpean izango da 18:30etik aurrera, eta txistor eta gaztain jatea egingo dute. Abeslari Lagunak koruak ere parte hartuko du barrikotean.

Laskoraingo abesbatzen emanaldia gaur 19:30ean

MUSIKA » Laskorain Ikastolako bi abesbatzek Gabonetako emanaldia eskainiko dute Sakramentino elizan gaur, 19:30ean. Pianoan Virginia Mendia ariko da. Guztira bi abesbatzen artean 90 ikasle ariko dira Naiara Mintegiaren zuzendaritzapean.

Gabon egunean kantari ateratzeko entseguak

KULTURA » Amarozko Auzo Elkarteek deituta, Gabon egunean, arratsaldean, kantari ateratzeko entsegua egingo dute bihar, 20:00etan auzoko lokalean (dispensario ondoan). Ohitura zaharrei eustea dela helburua, eta auzotarrak animatzen dituzte.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

G Gutunak**AHT gelditu!**

Egoeraren azterketa: Abiadura Handiko Trena Euskal Herrian inoiz egin den proiektu txikitzaile handiena da. AHTren lehen obrak 2006. urteko udazkenean hasi ziren, Arabako Luku herrian. Bertatik pasatzen den autopistaren lanak aprobetxatuz, AHTren lehen pausok eman zituzten.

AHT inposaturiko proiektu kapitalista eta politikoa da. Kapitalismoari jaten emanez prekaritate soziala areagotzen duena, alderdi politiko inbilitestek gidatuta

Euskal Herriaren ukazioan soka estutzen duena, eta Ama Lurra erasotzen duena, sekulako txikizioa sortuz. Gainera, Tolosaldean izango du eragin handi bat, hiru herri zuzenki hartuz eta inguruko akafektatuz.

Operazio politikoaren isla: AHT proiektuak Espainiako eta Frantziako gobernuen interesei erantzuten die, baita PNVren diru goseari ere. Instituzioetako diru publikoa agintean dauden alderdi politikoaren enpresetara joango da. Joseba Egibar burukidea adibidez Amenabar enpresa eraikitzaile-

ren goi kargu bat da. Xabier Arzallus, jadanik erretiratuta, harrobie-tako akzio-duna da. Esaterako Miren Azkarate «kriminalizatzaileak» azken egunetan erakutsi du zer jarrera duen Eusko Jaurlaritzak, AHT guri inposatu nahian.

Madrilek eta Parisek euren estatuen batasunerako tresna bezala nahi dute, eta PNVk proiektu autonomista indartzeko erabiliko du, euskal megahiria sortuz. Eta non esaten duen AHTk onura ekarriko duela. Barkatu Miren Azkarate, onura Euskal Herri aske bat nahi duten pertsonentzat ez da, baizik

eta zuen poltsikoak diruz betetze-ko bakarrik balio du.

Herri bezala borrokatu behar dugu proiektu honen aurrean, indarrak batu eta gelditzea lortu behar dugu. Baina AHT gelditzeaz haratago, aldaketa politikoa eta soziala bultzatu behar dugu.

AHTk konponezinezko kaltea eragingo dio Ama Lurrari.

Ondorio sozialak: AHTk lurralde desorekak areagotuko ditu, izan ere, hiriburuen arteko lotura besterik ez du egingo. AHT gure herrian egingo den azpiegitura garestiena da. 9.000 milioi eurokoa

izango da azken gastua. Ez ditu egungo trafiko eta garraio arazo larriak konponduko. Bestetik, kamioi kopuruaren hazkundeari ez dio aurre egingo.

Erantzuleak: Alderdi politikoak: PSOE, PNV, PP-UPN eta UMP bereziki eta beste alderdiak ere, EA eta IU adibidez. Instituzioak: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Madril, Paris... Konstruktoreak: Altuna y Uria, Balzola, Amenabar, Tecsa, Azvy, Obras Subterranneas, Moyua, Ferrovia... **Koldo Seara.** Villabonako Gazte Mugimendua.

Xaki ET Aren «bihotza» zela argudiatu du epaimahaiak

'18/98 auzia' »

Eskualdeko Mikel Egibar, Joxe Mari Olarra eta Nekane Txapartegi Xaki atalean daude inportatuta

ERREDAKZIOA

Xaki eta Ekin ET Aki zati zirela frogatuz eman du 18/98 auziko epaimahaiak; hareago, ET Aren «bihotzaren» zati direla esan du epaiari. Hain justu, Xaki atalean daude auzipetuak Mikel Egibar zuzurkildarra, Joxe Mari Olarra billabonatarra eta Nekane Txapartegi asteasuarra.

«ETAk aparatu armatua ez ezik, politikoa ere baduela» iritzi du

epaimahaiak, eta Ekin adar politiko horretako parte izango litzateke eta Xaki nazioarteko atala. «(Ekin) ET Aren bihotzaren zati zen, haren fronteetako baten buruzagitza osatzen zuen, fronte armatu eta politikoez gain erakundeak berak masa fronte edo fronte mediatico deitzen zuenarena», dio epaiari.

Joxemi Zumalabe Fundazioa, berriz, ET Aren «laguntzaile» jo du epaiari. Egin egunkaria eta hura argitaratzen zuen Orain enpresa legez kanpokotzat jo, etaliki-dazioa agindu du.

Zigor handiak

Mikel Egibar eta Joxe Mari Olarra ET Aren buruzagitzat jo ditu epaiak eta 13 urteko espetxe zigorra zehaztu du bakoitzarentzat. Nekane Txapartegi erakunde armatuko kideztat jo dute eta 9 urteko espetxe zigorra ezarri diote. Egibar eta Olarra azaroan 30ean atxilotu zituzten. Txapartegi oraindik ez dute atxilotu.

52 auzipetuetatik 47 zigortu egin dituzte; hots, bost bakarrik errugabetu ditu epaimahaiak. Horien guztien kontra ez zegoen atxilotzeko agindurik. Beste auzipetu bat ere bazegoen atxilotzeko agindurik gabe, Jose Ramon Antxia, baina hari 2 urteko espetxe zigorra

ezarri dio tribunalak. Osterantzeko 46 lagunei zigor handiak ezarri dizkiete, 4 urtetik 22ra bitartekoak, tartean aipatutako eskualdeko auzipetuak.

Hasiera liskartsua

11:00etan hasi behar zuen 18/98 auziko epaiaren irakurketak Madrilgo Casa de Campon, baina 40 minutuko atzerapenez abiatu zen. Hain zuzen ere, Angela Murillo epaimahaiko presidentea epaia ematen hasi zenean, zigor politikoa salatzeraz zihoazela salatze-ko ahalegina egin zuten auzipetuek, eta zutik jarri *Eusko gudariak* kantatzen hasi ziren eta memento horretan kanporatu egin dituzte. Hortik aurrera, 40 minutu iraun du epaiaren irakurketak.

Auzipetu gehienak espetxean

Auzipetuetatik gehienak dagoneko espetxean daude. Izan ere, epaia jakinarazi aurretik, azaroaren 30ean, 52 auzipetuetatik 46 atxilotzeko agindua eman zuen Auzitegi Nazionalak, «ihes egiteko arriskua» zegoela iritzita. Horieta-tik gutxi batzuk baldintzapean libre utzi zituzten gero epaia irmoa izan arte, eta atxilotzeko agindua izan arren ez dituzte atzeman bizipahiru. 40 bat, ordea, kartzelan daude.

Hainbat istripu direla eta auto ilara luzeak

Tolosaldea » A-15etik

zetorren kamioi bat irauli zen Andoainen, Villabonara arteko ilarrek eraginez

ERREDAKZIOA

Egun gogorra izan zen atzokoa gure errepideetan. Izan ere, N-1 errepidean istripu ugari jazo ziren egun guztian zehar.

Guztietan larriena arratsalde partean izan zen; A-15 errepide-tik zetorren kamioi bat irauli egin zen N-1 errepidearekin duen loturan, Andoain parean. Trailerra erditik hautsi zen eta zeraman zama errepidean barreiatuta gertatu zen. Ho-

rren ondorioz 8 kilometrotako ilara-rrak sortu ziren, Villabonara arte, Irungo norabidean. Bi ordu behar izan zituzten trafikoa arintzeko eta gidari larri zauritu zen.

Gasteizko norabidean ere istripuak

Atzo izan ziren haize bolada gogorren ondorioz, Gasteizko norabidean ere izan ziren istripu gehiago N-1 errepidean, Irura parean. Hala, une batez (arratsaldeko 18:30a aldera) trafikoa geldirik zegoen bi norabideetan zonalde horretan.

Goizkolehen orduetan ere auto ilara luzeak sortu ziren errepide honetan, Ibarako zubiaren parean.

Laburrak

Udal plenoaren ezohiko bilkura egingo dute gaur

ANOETA • Udal plenoak ezohiko bilkura egingo du, gaur, 19:00etan. ESAITen *Nazio bat, selekzio bat* mozioa; Anoetako EAE taldearen mozioa eta trenbidearen gaineko Allegi pasabidea kentzeko proposamenarekin adostasuna izango diru jorratuko dituzten gaiak.

Bigarren eskuko azoka antolatu dute gazteek

AIZTONDO • Aiztondo bailarako herrietan gazteek bigarren eskuko azokak antolatu dituzte. Gaur Zizurkilen egingo dute, 17:00etatik 18:30era. Asteasun etzi egingo dute, ordutegi berean. Alkizan hilaren 28an, tortila patata lehiaketarekin batera egingo dute azoka.



Bodiak
Pijamak
Kamisetak
Batoiak
Pikardiak
Tangak

Errementari Kalea, z/g • TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

INAUTERIAK 2008

Materiala prest dago! ADI! urtarrilaren 31 ostegun gizena



Elbarrena Industrialdea
Tel.: 943 888 232 Zaldibia

www.jaiakdenda.com

Gipuzkoako mozorro dendarik handiena
Orduetgia: Astelehenetik larunbatera: 10:00-13:00 / 16:00-20:00



Udazken Kulturalaren baitan, herriko mugak ezagutuko dituzte etzi

Ikaztegieta » Goizean plazatik aterako dira Alegia aldera, eta ondoren hamaiketako izango dute Herrigintza elkartearen.

N. URBIZU

Udazkena kulturaz bete nahi izan dute Ikaztegieta, eta hiru ekitaldi busterik ez dira falta Udazken Kultural honi bukaera emateko. Etzi ibilaldia prestatu dute, herriko mugak ezagutzeko ibilaldia, hain zuzen.

Ibilaldia bi mailakoa izango da; hau da, helduentzat bat eta txiki-kientzat bestea. 10:00etan abiatuko dira denak plazatik, eta hura izango da ere bukaerako puntua. Helduen ibilbidea bi ordu ingurukoa izango da eta haurrena, berriz, ordu eta erdikoa.

Ibilbideari buruzkoak

Plazatik abiatuko dira ibiltariak 10:00etan eta Alegia aldera joko dute lehenik. Ibaia gurutzatu eta Aldabatik Ugane auzoan azalduko dira. Bertatik, Mukuri baserria eta Iturriotz baserria ere ikusiko dituzte, handik igaroz. Bidetik jaitsi eta Zubiaurretik haurrak jada herriko plaza aldera joko dute.

Helduen bideak Zubiaurretik Larrunbe baserrirantz eramango ditu, herriko pagadiruntz. Mendiko bidexkatik joango dira eta autobidearen azpitik igaroko dira hilerriaren ondora iritsiz. Handik, jarraituz, plazara ailegatuko dira.

Ondoren, hamaiketakoa

Herrigintza elkartearen merezitako hamaiketakoa izango dute parte-hartzaile guztiak. Udalak prestatutako hamaiketarako 12:30a aldera bilduko dira bertan, denek ibilbidea bukatu ondoren.

Ibilbide honetaz arduratu dena eta prestatu duena Joxe Mari Uriá izan da.

Igandean Txintxarri abesbatza

Igandean, berriz, eraberritutako elizan Alegiko Txintxarri abesbatzaren emanaldia izango da 12:00etan. Estilo eta garai ezberdineko musika eskaintzen dute alegiarrek.

Hilaren 24ean, berriz, Olentzerori ongietorria egingo diote plazan. Orendaingo menditik jaitziko da 18:00ak aldera eta bertan kantu egingo diote. Kantu hauek bertan ondo ateratzeko bi entsegu egingo dituzte: bata gaur, 21:00etan liburutegian, eta bestea, berriz, etzi 15:30ean. Honela, aurtengo Udazken Kulturalari amaiera emango diote.



Plazatik aterako dira ibilaldirako. E.M.

Santomasetan, azoka, txorixoa eta haurrak plazan

Abaltzisketa » Altzoko, Ikaztegieta eta Berrobiko ikasleak gonbidatu dituzte aurten, azokaz gozatzeko eta lagun artean egoteko.

NEREA URBIZU

Abaltzisketan Santo Tomas eguna ospatzen dute urtero. Plazara herritarren postuak atera, musika alaitzen eta eskolako haurrak, ar-tzaiz jantzita egoten dira bertan. Bihar, beraz, egun berezia izango dute herritarrek.

11:00etatik 13:00etara bitarte egongo dira plazan. Bertan, animaliak, etxean egindako produk-

tuak, eskolan prestatutako postua eta abar egongo dira. Ez da faltako ez txistorrarik ez edatekorik. Urte batzuk badaramatzate eguna ospatzen eta beti giro hotza baina polita egoten da. Ikasleek jai izaten dute eta herriak bizitasuna hartzen du.

Abaltzisketakoekin batera...

Aurten ere Ikaztegieta haurrak joango dira Abaltzisketara, azokaz gozatzera eta beste haurrekin jolastera. Berrobikoak eta Altzokoak ere joango dira bisita egitera eta bertan, festa egingo dute ordu batez. Abaltzisketarak 13:00a arte egongo dira, baina besteak lehenago joango dira.



Abaltzisketako santomasetan, Leire, Nahikari eta Ane. N.U.

12 ibilaldi proposamen,
hilabete bakoitzeko bat.
Gabonetarako opari aproposa
prezio ezin hobean.
Zatoz elkar megadendara
eta lortu **elkar agenda!**

Con las excursiones más
apropiadas para cada mes.
El mejor regalo para estas
Navidades a un precio increíble.
Ven a elkar megadenda y
consigue tu **elkar agenda!**

2 €-ren
truke

X.

elkartasun krosa san silvestre

**abenduak 31,
16:00etan
ZERKAUSIAN.**

distantziak

16:00H	benjaminak	800 m
16:30H	alebinak	1600 m
17:30H	infantilak	2900 m
17:30H	nagusiak eta beteranoak - NESKAK	5050 m
17:30H	nagusiak eta beteranoak - MUTILAK	5050 m

sariak

17:00H benjamin, alebin eta infantilak kamisetak eta karpetak denentzat, dominak eta garaikurrak...

18:30H nagusiak eta beteranoak saskiak, afariak, garaikurrak eta polikiroldegiko bonoak eta 2 kirol-medikuntza azterketa

Izenematea
Abenduak 17tik aurrera, ARALAR KIROLAK dendan.
Eta egun
Helduak aurrez 5 euro,
egunean 7 euro (oparia: kamiseta) Haurrak DOHAN

Elkartasun kross honetan jasoko den dirua, Guabas erreka inguruko proiektua bultzatzeko erabiliko da, beraz kolonbiara bidaiko da. Honetarako, diru bilketa egingo da egun berean



Ibarratik Misio Taldeak antolatu duen Merkatu Txikia abenduaren 23rarte egongo da zabalik Ibarroko plazan aurkitzen diren parrokiako lokaletan. ASIER IMAZ

Txapeldun berriak



» Zilarrezko jaurtiketa

Jon Altuna

Ibarrak dagoeneko baditu txapeldun berriak pilota txapelketan: Gorka Goikoetxeaundia eta Joseba Jauregi. Final gogorren ostean nagusitu ziren eta ikusteko aukera ez izan arren oso polita izan omen zen. Txapeldunen aurka kanpora geratu izanaren ohorea dudala esan behar eta ez da gutxi.

Las Palmaseko porrotaren ondoren berriro ere Ipuruara itzuli ginen. Elx-en aurka jokatzeko ginen, aurkari aski ezaguna, izan ere, kopako kanporaketa talde honen aurka izan ginen. Kopangaldu ondoren, nolabaitko errebantxa gogoa genuen eta gure gogo eta nahi horrek garaipenaren bidea erraztu zigun. Hala ere, partida arraro xamarra izan zen; giro hotzekoa. Eguraldiak asko ez zuen laguntzen; hau da hotza larunbatean egin zuena! Bestalde, ETBk zuzenean eman zuen partida. Baldintza hauek medio, Ipuruara inoiz baino jende gutxiago gerturatu zen. Esan bezala, partida irabazi egin genuen. Sailkapenean toki ezin hobean ipini gara eta urteko azken partida inongo presiorik gabe jokatzeko aukera izango dugu, ea emaitza polit bat lortzeko aukera dugun.

Partida larunbatean zela eta, igandean Gipuzkoako bertso finalera joateko aukera izan nuen. Harrituta geratu nintzen bertsoari mailarekin, meritua handia du hainbeste jenderen aurrean ipini eta denak hunkitzeko ahalmena izateak. Mendiluze izan zen merezita txapeldun, Beñat Gaztelumendi txapeldun morala, eta Iker Zubeldia herriaren txapelduna, barre ederrak egin genituen zegamarrarekin eta bertso onak izan ziren arren, ni bere kartzelako hiru garrenarekin gelditzen naiz. Euskal festak berriro ere arrakasta itzela izan zuen.

Etzidamura arte zabalik Misio Taldeak antolatutako Merkatua

Ibarra » Merkatu Txikian herritarrek, Ibarroko merkatariek eta India, Honduras eta Ekuadortik ekarritako produktuak aurkitzen dira salgai.

ASIER IMAZ

Ibarratik Misio Taldeak urterobezala Merkatu Txikia antolatu du plazan dagoen parrokiako lokaletan. Bertan lortuko diren irabaziekin Ekuador, India eta Hondurasko proiektuei lagundu nahi zaie. Merkatua hil honen 23ra arte, iganderarte, egongo da zabalik.

Produktu ezberdinak

Ibarratik Misio Taldeak merkaturatu osatzeko material anitza lortu du. Horretarako iturri ezberdinak erabili dituzte; herritarrek eskainitako produktuak, Ibarroko dendariak emandako materiala eta kanpotik, misio taldeak lan egiten duen lekuetatik, ekarritako gauzak aurkitzen dira salgai Merkatu Txikian.

Antolatzaileek herritarrei eta ingurukoiei, Ibarroko plazan aurkitzen diren parrokiako lokaletara

gerturatzeko deia egin diete. 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:30era zabalik egongo dira ateak. Igandean berriz, azken egunean, 10:00etatik 14:00etara.

Eritreko proiektua geldirik

Ibarroko Misio Taldeak eskolak eta erietxeak zituen Eritrean, bertan lan egiten zuten jendeaz gain. Gaur egun ordea, «gobernuaren esku» geratu direla jakinarazi dute misio taldeko kideek. «Bertan dagoen egoera politikoaren ondorioz», bisaduekin arazoak daudela aipatu dute.

Hala eta guztiz ere, Ibarroko taldeak aurrera jarraitzen du India, Honduras eta Ekuadorreko proiektuekin. Iganderarte zabalik egongo den Merkatu Txikian bertako produktuak ikusi eta erosteko aukera ere egongo da.



Herritarrek emaniko produktuez gain, kanpotik ekarritakoak aurki daitezke. A.I.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

NAIARA GARZIA

gandean Jon Rekondo leitzarrak eta Joseba Otaegi zizurkildarrak hitzordu garrantzitsua dute Tolosako zezen-plazan: aizkora-apustua. 8 kana erdiko enbor eta 660 ontzako moztu beharko dituzte ahalik eta azkarren eta 4.000 euro jokatuko dituzte. Denbora dezente igaro da azkeneko aizkora-apustua egin zenetik. «Gaur egun mirariz egiten dira aizkora-apustuak», dio Patxi Astibia aizkolari ohiak. «Lehenago asko egiten ziren, orain ordea ez dute apusturik egin nahi. Apustuatarako buru-belarri prestatu behar zara eta gastuak ere handiak izaten dira».

Joseba Otaegik eta Jon Rekondok inertzia hori mementoz behintzat hautsiko dute, igandean, Tolosako zezen-plazan, eta bai bata, bai bestea, lanaren zailtasunez jakitun dira. «Gogorra izango da», dio Joseba Otaegi zizurkildarrak «luzea izango baita. Orain arte beti ordu-laurdeneko lanak egin ditugu eta orain 45 minutu inguru beharko ditugu». Rekondo leitzarra ere iritzi berekoa da. «Apustuatarako lana nahiko luzea izaten da, 40 minutu ingurukoa, ez dakit zenbat minutu pasako ditugun, baina luzea izango da».

Otaegik Rekondori desafia

Bi hilabete eskas izan dituzte apustua prestatzeko Leitza eta Zizurkilgo aizkolariak, duela bi hilabete Otaegik Rekondori desafia egin zion egun hartatik hona. «Nik hirugarren mailako Euskadiko Txapelketa irabazi nuen. Orduan nire burua nahiko ongi ikusten nuen eta horregatik berari desafia proposatu nion. Kantabriko tabernan bildu ginene eta lanak-eta han erabaki genituen».

Igandeko lana luzea izango denez, biak fondoa edo iraupena landu dute. «Gehienbat fondoa landu dute», dio Otaegik. «Aizkorarekin aritzeaz gain, mendira ibiltzera joaten naiz. Gimnasioan berri oso gutxi ibili naiz». Rekondo aizkolarientzat ere mendia hagitz garrantzitsua da prestatzeko orduan. «Lan luzerako nahiko txukun prestatu naizela esango nuke, aizkorarekin denbora gehiago entrenatuz eta mendian denbora gehiago ibiliz. Aizkora ari behar nuen egunetan mendira joaten nintzen. Mendira joatea niretzat oso garrantzitsua da, mendira ez banaiz joaten, ez dut entrenatzen».

Zezen-plaza, leku mitikoa

Aizkora apustua igandean izango da, 12:30ean, hainbeste urtetan hainbat apustu hartu dituen Tolosako zezen-plazan. Bi aizkolariak gustura daude aukeratutako lekuarekin. «Lekuarekin gustura gaude», dio Otaegik, «eguraldi ona eginez gero leku ederra da». Plazaren berotasunaren inguruan ere mintzatu dira. «Jendearen animoak niri behintzat asko egiten dit», dio Otaegik, «entrenamenduetan etxean bakarrik ari zarenean ezberdina da, baina plazan beti



Xabier Zabala antolatzaileak azaldu duenez, «2.000 pertsona inguru» espero dituzte igandean. N. GARZIA

Bi hilabete eskas igaro dira Joseba Otaegik Jon Rekondori desafia bota zionetik, eta apustu eguna iritsi da: aizkolariak igandean dute hitzordua, Tolosako zezen-plazan, 12:30ean, eta 4.000 euro jarri dituzte jokoan.

4.000 euro jokoan

gehiago saiatzen zara, jendearen animo horrek eraman bezala egiten zaitu batzuetan». Rekondok ere jendearen animoa garrantzitsua dela azaldu du, «baina erakustunekin aritzearekin ez dut uste jendeari kasu gehiegi egingo diogunik. Horrek asko aldatzen du».

Hiru egun besterik ez dira gelditzen eta presioa gain gainean dute bi aizkolariak. «Txapelketa batean baino presio gehiago duzula esan-

go nuke», dio Rekondok, «txapelketa batean gainera 5 edo 6 izaten gara, orain 2 bakarrik egongo gara». Otaegik ere tentsio dezentea sentitzen du. «Plazara joandakoan eta egur pare bat ebakitakoan pasako dela pentsatzen dut».

Aizkora-apustuak

Otaegiren ustez, «gaur egun txapelketak besterik ez dira egiten, apustuatan beti lan luzeagoak egi-

ten direnez, lan hori egitera orain arte ez gara inor ausartu, errespetua ematen baitu». Gauzak honela, apustu bat irabaztea ez da gauza makala. «Bai diru aldetik, bai moral aldetik garrantzitsua da, eta gero apustuatan erakusten aritzen zaizkizunek-eta beste motibazio bat jartzen dute», dio Otaegik. «Giroa bera ezberdina da, txapelketatarako entrenatzen zara eta ahalik eta hobekien egiten dituzu gauzak, baina apustu bat bezain serio ez duzu hartzen. Hau beste mundu bat da». Rekondo ere bat dator Otaegirekin. «Niretzako txapelketa baino garrantzitsuagoa da apustu bat irabaztea, ilusio gehiago egingo lidake». Otaegiren ustez presioa handiagoa da apustuatan. «Jendeak askoz ere serioago hartzen du, baita inguruko jendeak ere, eta askoz gehiago mugitzen da apustuatar».

Aspaldi honetan aizkora apusturik izan ezenez, igandean jende mordoak bat bilduko dela uste du Patxi Astibia. «Jendeak aizkolari gazteak ikusteko gogo da. Nire ustez oso borrokatua izango da, eta oso polita. Otaegi handiagoa da, baina Rekondo aizkolariagoa, gogorragoa da hura baino».

2007. urtearen balantzea

Urtea amaitzeaz gero eta bi aizkolariak urte honen inguruko balantzea egin dute. «Bikoteka jokatzen nuen Urrezko Aizkolarien finala, Tolosako inauterietan», dio Rekondok, «gero banakako finala jokatzen nuen, eta honetaz gain erakustaldi asko izan ditugu. Bikotekakoan txapeldunorde eta banakakoan txapeldun gelditu naiz. Gero beste txapelketa batean ere parte hartu nuen eta han gaizki aritu nintzen, baina orokorrean nahiko ongi aritu naizela uste dut». Gaur egun, Jon Rekondo Euskadikoan Bigarren Mailan dago eta Naifarokoan, aurrenekoan.

Joseba Otaegirentzat, aldiz, ur-

Bi hilabete eskas izan dituzte apustua prestatzeko Leitza eta Zizurkilgo aizkolariak

Hiru egun besterik ez dira gelditzen eta presioa gain-gainean dute bi aizkolariak

Zortzi kana erdiko eta sei 60 ontzako moztu beharko dituzte, ahalik eta azkarren

tea ez da hain egonkorra izan. «Urtea nahiko gaizki hasi zen, bi meñiskoetatik operatu ninduten eta ezin izan nuen txapelketetan parte hartu», dio Otaegik. «Ekaina alde-hera hasi nintzen pixka bat aizkora, Gipuzkoako Txapelketa geneukan eta ia batera entrenatu gabe ateratzen nintzen. Geroztik, beste txapelketarik izan ez dudanez, hirugarren mailako hori prestatzen saiatu naiz buru-belarri, lanak luze-zeaxoak eginez, gerora begira».

Joseba Otaegik Hirugarren Mailako Txapelketan txapela irabazi zuen, eta ondorioz Bigarren Mailara igotzen. «Fisikoki ongi nintzen, Geldialdi hori egin izanak on egin didala uste dut, bestela erreago egingo nintzateke».



Oraingoz sarrerak Leitza, Tolosa, Zizurkil eta Azpeitian saldu dituzte. N. GARZIA





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Laskorain Abesbatzak Gabonetako kontzertua eskeiniko du Sakramentinoen elizan 19:30ean.

■ **Tolosa.** Tolosako Orfeoieren Gabon kontzertua Leidor aretoan izango da 20:30ean. Concerto orkestrarekin batera eta Amaia Arberas eta Jon Plazaola bakarlariak direla opera eta zarzuela ezaguenen zatiak eta bukatzeko, Eguberri kantak abestuko dituzte.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Karroza eta konpartsa plataformaduen ordezkarien bile-
ra Kultur Etxean 20:00etan.

■ **Tolosa.** Antxon Bandresen *El sportman Antxon Bandres (1874-1966) Fundador del montañismo vasco* liburua aurkeztuko du Aranzadi zientzia elkarterko Paco Etxeberriak udal batzar aretoan 19:30ean.

■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarterak jakinarazi nahi du, astelehene-
tan eta asteazkenetan 19:30etatik 21:00etara, 2008 urteko mendi federatu txartela ateratzeko aukera izango dela. alpinouzturre@hotmail.com.

■ **Ikaztegieta.** Liburutegian 24ean kantatuko dituzten Gabon kanten entsegu egingo dute 21:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** Al Goreren *Una verdad incomoda* dokumentala Helduen Heziketa Iraunkorrek eskolan 10:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

'Joan-etorriko irakurketak' izeneko ekimen bati esker Leizako Erleta Eskolak liburutegi ibiltari bat antolatu du eskolako liburutegian bertan, ikasleen artean irakurketa bultzatzeko.

Euskaraz irakurtzen dugulako

NAIARA GARZIA

Leizako Erleta Eskolako liburutegi barruan liburutegi ibiltari antzeko bat antolatu dute. Salamancako (Espainia) German Sanchez Ruiperez Fundazioak bideratutako ekimena da, eta liburu bilduma bat ikastetxez ikastetxe eramatea du helburu. Orain arte ekimen hau betierdaraz egin den arren, aurtun, Erleta Eskolako zuzendaria den Heleni Zabalek bultzatuta lehenengo aldiz euskaraz egin dute. Liburutegi ibiltari moduko hau lehen hezkuntzako 30-40 liburuz osatuta dago, eta jada hilabete darama Erletako liburutegian. Bertako irakasleek azaldu dutenez, "helburu nagusiak idatzizko haur eta gazte literaturan gaur egun dauden aukerak ezagutaraztea eta ikasleen irakur heldutasuna hobetzea eta handitzea dira. Honela, irakasle bakoitzak liburu bilduma honetatik liburu bana aukeratu du, gero klasean ozenki irakurtzeko. Dena den, bakoitzak egokienak iruditu



Liburutegi ibiltari hau lehen hezkuntzako 30-40 liburuz osatuta dago. NAIARA GARZIA

zaizkionak aukeratu ditu, ikasleen maila kontutan hartuta. Erleta Eskolatik azaldu dutenez, ekimen honekin batera, orri-markagailu bat egiteko asmoa dute: honek eskolako marrazkia izango du alde

batean eta beste batean ikasleei egingako ondorengo galderaren zerbait erantzun: Zer daliburu bat zuretzat? Atzean, beraz, ikasleen zerbait erantzun jasoko dituzte.

Joan etorriko irakurketak dire-

nez (honetan izena du ekimen honek), urtarriaren 14ean liburutegi ibiltari honek bere bidea jarraituko du, beste ikastetxeren batean, Leizakoa atzean utzi ondoren.

A Agurrak



Urte askoan!

Txomin Urdanpilleta Mujika (Anoeta). Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Urte askoan!

Jesus Mari Ormaetxea (Alegia). Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.

Kimetz

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

www.kimetz.eu

txokoa **h**

Saskia

Gorrotxategi gozotegiko produktuez osaturiko saskia zozketatuko dugu harpidedun guztien artean!

HITZAren harpidedunentzat abantailak



5 sarrera pare

deitu eta eskuratu

Markeliñe

antzerki taldeak
Txitxarra eta Iñurria
antzezlan

abenduaren 26an asteazkena
17:00etan • Tolosako Leidorren



Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**